

## TOKI GARAPENERAKO BATZORDEA

### 2.- LASTAOLA POLIGONOKO, EREÑOTZU 92Y HELBIDEA DUEN ERAIKINARI BURUZKO KONTSULTA. (Txos. EV 71\_21)

Garobel S.L.-k, Hirigintza kontsulta egiten du. Lastaolan, Ereñozu auzoA 92Yan, dagoen pabilioaren hirigintza egoera zein den eta eraikigarritasuna agortuta ote duen jakin nahi da.

Aztertu da udal arkitektoak egindako txostena.

#### Proposamena

#### Tokiko Gobernu Batzarrak hau erantzutea:

---

Aztertu da Ereñotzu bailara 92Y partzelaren hirigintza egoera eta zera ondorioztatu daite:

- Hernaniko Udal artxiboaren arabera, 92Y partzelak 4.169m<sup>2</sup> ko azalera du eta baimendutako okupazioa 2.479 m<sup>2</sup> ko da.
  - Hiru eraikin egiteko Udal baimena eman da:
    - 1990ko maiatzaren 8an lehen erabilera ematen zaio 1.372m<sup>2</sup>ko okupazioa duen pabilio nagusiari.
    - 1991ko apirilaren 23an lehen erabilera ematen zaio 151,14m<sup>2</sup> ko okupazioa duen bulego erabilera duen eraikinari.
    - 2000ko maiatzaren 23an baimentzen da eraikin nagusiaren handipena 598m<sup>2</sup> ko azalera duena.
- Guztira, 2.121,14m<sup>2</sup>ko okupazioa baimendu da partzelan. Hortaz, printzipioz, 206,72m<sup>2</sup> okupazioa egiteko aukera egongo litzateke. Halaere, partzelan okupazioa zenbatzen duten beste elementu batzuk daude: argindarraren eraikuntza, adibidez. Honen okupazioa kendu beharko litzateke gelditzen den kopurua ezagutzeko. Bestalde, egindako handipenaren lehen erabilera izapeditu beharko litzateke eta biruten depositoarene legalizazioa eskatu.
- Pabilioietan erdisolairuak eraikitzeak aukera dago. Hauek, Arau orokorreko 60. artikuluan arautzen dira eta zuzkidura jardueratzat joko dira.
  - Edozein esku-hartze egin aurretik, gain jarritako baldintzak kudeatzen duten organo eskudunen baimena aurkeztu beharko da.
-